

EKARPEN NAGUSIEN LABURPENA

**2018-2020 EKINTZA-PLANA EGITEKO
FORO IREKIA**

EKINTZA-PLANERAKO KONPROMISOAK DEFINITZEN

BILBO - 2018-07-02



1. KONPROMISOA – KONTUAK EMATEA

Zer esan nahi du KONTUAK EMATEAK?

Kontuak emateko eredu bateratua behar dugu, honako hauetan lagunduko diguna:

Hizkuntza administratiboa sinpletzen, eta modu argi, ulergarri eta erakargarrian komunikatzen Ekintza publikoa baloratzen, herritarren iritzien eta pertzepzioaren bidez Informazioa segmentatzen, ekintza bakoitzak kolektibo desberdinetan duen eragina aztertzeko

Eta berrikuntza-elementuak jaso behar ditu:

2030 Agendarekin lotuta dauden eta gizartean eragiten duten adierazleen azterketa, ebaluazioa eta definizioa, kontuan hartuta zerbitzu edo politika bakoitzak zerbait kendu edo gehitzen duela Etengabeko gizarte-ikuskaritza, gizarteak jarraipenean, azken ebaluazioan eta diseinuan parte har dezan

Zer lortu nahi dugu 2020an?

Kontuak emateko gutxieneko baldintzak betetzen dituen eredu bat, honako bereizgarri hauek dituena:

Administrazio publikoen artean adostutako adierazleak
Informazio ikusgarria eta ulergarria ematen duen plataforma
Erantzukizunak hartzen dituena
Partaidetza-prozesuak barne hartzen dituena

Galdera berriei erantzuteko diseinatu dena...

Herritarren ustez kontuak ematean jorratu behar diren gaiei buruzko dekalogo bat dugu Gure politikek gizartean duten eraginari buruzko kontuak ematen ditugu Etengabe jartzen dugu gure lana zalantzan, gizarte-ikuskaritzaren bidez

NOLA lor dezakegu?

1. Kontuak emateko proiektua diseinatzeko printzipioak herritarrekin adostu behar dira (arlo estandarrak, gutxieneko adierazleak eta jarraipenerako mekanismoak zehaztuta), aginte-plana oinarri hartuta
2. Aginte-planeko plataformaren alderdi funtzionala zehaztu behar da (berrerabilpenean oinarrituta), dibulgazioa ahalik eta gehien sustatuz
3. Aginte-planaren jarraipenean zehar partaidetzarako eta komunikaziorako gakoak identifikatu behar dira (gizarte-ikuskaritzaren eredua), bai eta plana idaztean ere (gakoak: hizkuntza egokia eta erraza, balorazio-eskaria...)
4. Emaizta pilotuak beren garrantziaren arabera aldizka argitaratzeko eskema garatu behar da (analogikoaz harago)

5. Aldizkako komunikazio-ekintzak diseinatu behar dira (sei hilekoa / urtekoa / agintearen amaierakoa)
6. Lagin pilotuan ezarri behar dira (udal-hauteskundeen ostean): aginte-planak (elementu komunak eta erabilgarriak identifikatuta) edo/eta herritarren interesekoak diren 10 gaien identifikazioa
7. Pilotuaren ebaluazioa egin behar da

NOREKIN?

Administrazio publikoekin

Arduradun politiko eta teknikoekin

Kolektiboekin: hurrekin, adinekoekin, emakumeekin, migratzaileekin, hirugarren sektore sozialarekin (gizarte-arazoekin harremanetan dauden profesionalekin)

Unibertsitateekin (sektore akademikoa)

Herritar eta gizarte zibil antolatuekin

Alderdi politikoekin

Agente adituekin

GARRANTZITSUA

Kontuak emateko eredia herritarrekin zehaztu behar da (zer, nola eta non). Kontuak emateko prozesua plangintzarekin lotu behar da, eta herritarrek prozesu osoan zehar parte hartzen dutela bermatu

Aginte-planaz harago joatea gutxienekoa den arren, ez da aski. Pilotua izan daiteke (eredu komuneko aukerak probatu egin behar baitira), beste batzuekin batera; horren adibide, kontuak ematean herritarren intereseko izan daitezkeen gaien dekalogoaren diseinua

2030 agenda - zein da ekintza publikoak gizartean duen eragina? Kontuak ematean halako adierazleak sartu behar dira (ingurumenaren gaineko eragina, generoa eta abar)

Lankidetzaz ezarri behar da bi kolektibo nabarmen hauekin: hurrekin eta emakumeekin

2. KONPROMISOA – OPEN DATA ETA LINKED DATA

Zer esan nahi ESKARITIK, modu NORMALIZATUAN eta LOTUAN irekitzeak?

Erakundearteko zerbitzu bakarra lortzeko beharrezko urratsak ematea, xede hauek betetzeko:

Datuak gehitzean jatorrizko iturrien zioz egon daitezkeen aldeak ezabatzea eta egiturak normalizatzea

Datuei eustea, gobernu-aldaketek eraginik izan gabe, eta datu-multzoak eskuragarri egotea (positiboak eta negatiboak)

Datu irekien kultura gehiago sortzea

Nork eta nola argitaratzen duen zehaztea, eta datuek, datuen erabilgarritasunak eta erabilerak duten eragina neurtzea

Europa eta munduko datu publikoekin lotzea

Erabiltzailearen esperientzia erakargarria, positiboa eta erabilgarria izan dadila lortzea

Eskariaren ikuspegitik:

Aldez aurretik jakitea zein daturi buruz argi garen (are erakutsi aurretik). Herritarrei interesatzen zaizkien datuak ematea, datu horien azterketa barne

Datuetan oinarrituta zerbitzuak sortzeko eredua garatzea. Estrategia hobetzeko datuak itzultzen dituzten ereduak ezartzea, beren ustiapen eta erabileraren gaineko feedbacka ematen dutenak

Erakundeen (publiko eta pribatuen) arteko lankidetzeta eta erakundearteko koordinazioa sustatzea, produktuak ireki eta garatzeko orduan

Zer lortu nahi dugu 2020an?

Datuak ireki eta jendaurrean balioesten direla bermatzeko prozesu berriak:

Erakundearteko lantaldea eratu behar da, agente garatzaileekin batera egingo duena lan foro batean, nola, nork eta non argitaratu behar duen zehazteko. Datuen gaineko profil aditua osatu behar da txantiloia publikoetan

Emaitzak eta eraginak neurtzeko adierazleen sistema ezarri behar da, ikusgarritasun eta irisgarritasuneko elementuak txertatuta

Sistema diseinatu eta ezartzea

Lankidetzeta pribatuarekin

Modu normalizatu eta estandarizatuan, datuak lotu ahal izateko

Informazioa emateko, berrerabilpena sustatuta (modu masibo eta erabilgarrian), zerbitzu publikoak sortu eta hobetzeko aukera eman ahala

NOLA lor dezakegu?

1. Erakundearteko lantalde bat martxan jarrita, Eusko Jaurlaritzaren lidergotzarekin batera prozesua gida dezan
 - Administrazioaren barruan sentsibilizazio-programak sortu behar dira – irekiera
 - Datuak eskariaren, normalizazioaren eta argitalpenaren arabera hautatu behar dira, zerbitzuak diseinatzeko
2. Datu-multzo eskatuena hautatu behar dira, baldintza bakarra ezarrita: alegia, EAEko administrazioek dituzten datuak izatea:
 - Herritarren partaidetzan oinarrituta, administrazioak dituen datuak bilatzeko arrazoirik garrantzitsuenak zeintzuk diren jakin behar da
3. Administrazioen artean datuak normalizatu eta homogeneizatu behar dira
4. Datu-multzoak formatu berrerabilgarri irekietan argitaratu behar dira (Tim Berners-Leeren datu irekien 5 izarreko eskemako 3. maila)
5. Zenbait datu-multzo argitaratu behar dira datu estekatu gisa (linked data, edo Tim Berners-Leeren datu irekien 5 izarreko eskemako 5. maila), eta Open Data Euskadi atariko Linked Open Data azpiegituran kargatu
6. Erakundearteko zerbitzuak sortu behar dira datu estekatuekin

NOREKIN?

Ikastetxe, unibertsitate eta ikerketa-zentroekin

Administrazio publikoekin: Eusko Jaurlaritza, Aldundiak eta udalak

Erantzukizun politiko eta teknikoa duten pertsoekin

Talde politikoekin

Elkarte eta erakunde pribatuekin

Herritarrekin (ez da espero behar beraiek hurbilduko direnik; beren bila irten behar da)

Interes-taldeekin (open data laborategia, sindikatuak, hedabideak...)

Kultura-agenteeekin

Nazioarteko agente adituekin (datuen eta informazioaren gaineko ezagutza)

Berrerabiltzaileekin: ikertzaileak, aholkulariak, enpresak, hirugarren sektorea...

GARRANTZITSUA

Prozesuan, lehen une garrantzitsua zera izan behar da: eredia zehaztu eta datuak irekitzearen kultura lan gehiago egitea. Ondoren, lana normalizatu eta lehentasunak zehazteko foro egonkorrarekin (publiko eta pribatua) arituko den lantaldea osatu behar da, Eusko Jaurlaritzaren gidaritzapean

Pertsoek, administrazioen esku dagoen informazioa bilatzera doazenean, zein duten arrazoi baloratu behar da bereziki. segurtasuna? laguntza? negozioa? Herritarren partaidetza aztertu behar da, herritarren, enpresen, familien edo kolektiboen arrazoi nagusiak identifikatzeko

Talde politikoak hausnarketan sartu behar dira – datuetan jasota geratu behar da

Datu-multzo osoak ikusi behar dira (positiboak eta negatiboak)

Nazioarteko adituak agente gisa sartu behar dira

3. KONPROMISOA - ILAB

Zer da ILAB?

Laborategi batean oinarria elkarrekikotasuna izan behar da, eta partaidetzaren kultura sustatu behar du, espazio horretan

Akats egin eta ikas dezazun, kontuak emanez. Zer eta zertarako jakin dezazun, baina nola argi izan gabe: entrenatzeko balio diezazun

Zalantzen artean jardun dezagun, benetako partaidetza deritzoguna bilatzeko

Itxaropenei erantzun diezaiegun: arauak argiak izan behar dira: aniztasuna, konfiantza, zaintza, araudia...

Eszenatoki berriak antolatu eta konfiantza berrezar dezagun

Aniztasuna kudeatu eta gehitu dezagun

Eta, horretarako, nahitaezkoa da:

Honako faktore hauek aztertzea: egonkortasuna, bideragarritasuna, erantzuteko gaitasuna / proba

Ezagutzea: Euskadin dagoena identifikatu eta ikusaraztea. Kanpotik ekartzea

Ikastea, entrenatzea, ohitura eta kultura... ahaldundu eta trebatzeko. Beharrezkoa da jolastea, pilotatzea, arriskatzea eta esperimintatzea

Laborategiaren eta erakundearen artean lotura sendoa ezartzea, laborategian lantzen dena ondoren erakunde-mailan ezar dadin. Esperimintatzearen eta ezartzearen arteko oreka ezartzea

Denen partaidetza ahalbidetzen duten praktikak garatzea (lagin garrantzitsuak / zozketa), behetik gora ezarritako ideia berritzaileen bidez, eta lankidetzaren prozesuak kudeatzeko modu eraginkorren protokoloak antolatzea

Zer lortu nahi dugu 2020an?

Taldeak zehaztuta, eta esperientzia pilotuen bidez, prozesu irekia baliatuta:

Esperientzia, agente eta proiektuen mapak egiten hasi gara: identifikatu eta ezagutzen

Ilab-en harreman-eredua zehaztuta dugu (kudeaketa- eta gobernantza-eredua): lanerako 3 elementuak finkatu, nolakotasuna zehaztu, adostu, erronkak zeintzuk diren ezarri, zer lortu nahi den, pilotuak zehaztu... askotariko agenteekin probak egin. Aurrekontuak aztertu, eta heldu ezean, berrikusi

Hedatzeko prest dauden emaitzak, tresnak eta kultura sortuz egingo dugu lan:

Edonolako erakunde eta elkarteek daukate oinarritzko kit erraz bat, beren testuinguruan parte hartzeko prozesuak aktibatuz. Halaber, lankidetzan aritzen dira, eta beren baliabideak partekatzen dituzte. Horrez gain, EAEko herritarrek parte hartzeko eskubidea eta erantzukizuna ikasi eta barneratu dituzte, eta, gainera, partaidetza ekoizlea garatzen dute

Protokolo bat dugu, askotariko metodologiak aztertu, elkarlanean diseinatu, ebaluatu eta antolatzeko baliagarria dena. Eta pertsona askok parte hartzea lortu dugu, betiko horiez gain

Proiektuetan parte hartzeko konpromisoari eutsi zaio, eta trebakuntza eta elkarrekiko diseinua oinarri hartuta egiten da lan, erantzukidetasuna eta gobernantza irekia lortzeko. Elkarrekin diseinatzen dira zerbitzu eta politika publikoak, pertsonengan oinarrituta. Horrez gain, askotariko agenteen arteko lankidetzaren prozesuak erakusten dituzten esperientzia ugari dauzkagu. Lankidetzaren eta partaidetzaren prozesuak hedatzen dituzten kolaboratzaileen sare bat ere badago

NOLA lor dezakegu?

1. Laborategia sortu behar da, foro informal gisa, baina berrikuntzarekiko eta jardunbide onen orokortzearekiko konpromisoari eutsiz
 - Kudeaketa-eredua zehaztu eta formalizatzea beharrezkoa da. Harreman-sistema, zeharkakotasuna eta dimentsio-aniztasuna kontuan hartuta, sektore-aniztasunaren aldean
 - Tokiko ikuspegia txertatu behar da, hau da, jendearen egunerokotasunean eragin
2. EAEn, munduan eta OGP bazkideetan herritarrek parte hartzeko sortutako praktika berritzaileak mapatu behar dira (esperientziak, proiektuak, agenteak)
 - Behatoki lotua – bilatzen ikastea vs mapatzea
3. Interesgarriak izan arren arriskua duten edo eztabaidatuak diren eta gidatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko bultzatzaile egokiak dituzten praktika berritzaileei buruz (zozketa bidezko kontsultak, aurrekontu partaideak, parte hartzeko plataforma birtualak, elkarlaneko zuzenbidea...) garatu beharreko proiektuak identifikatu behar dira
 - Proiektu horiei erantzuteko zein beharrizan edo zailtasun dagoen identifikatu
 - Etorkizunerako deialdia egin: zein pertsonarengana ez da hurbilduko?
4. 4 pilotu abiarazi behar dira; “zer” eta “nola” jorratzen lan egindako urte bakoitzeko bi. Adibidez: aktibazio-prozesuak (gazteak, neskatoak, etorkinak...edozein? hizkuntza barneratzailea), gizarte-zerbitzuen erabiltzaileak, alokairu kontzientek - eskubide kolaboratiboa, zozketa bidezko kontsulta, aurrekontu partaideak, haurren partaidetza
5. Eraitzen eta eraginen ebaluazio partaideak egin behar da
6. Probatutako partaidetza-eredu, -tresna edo -metodologia berriak sortzeko orientazioak ezarri behar dira, euskarri sortzaileak tarteko
7. Hedapena/ikusgarritasuna sustatu behar dira: beste leku batzuetara begiratu behar da, aintzatespena edo esker ona (sariak) emateko

NOREKIN?

Herritarren partaidetzaren erantzukizun teknikoak duten pertsonekin
 Erantzukizun politikoa duten pertsonekin: udalak, Aldundiak, Eusko Jaurlaritza
 Elkarrekin dauden eta ez dauden herritarrekin: zozketa bidez, ekimenen bidez (batez ere partaidetza bidezkoak ez direnean), herritar kontzientziatuak
 Teknikariak/profesionalak, partaidetzakoak eta sektoreetakoak

GARRANTZITSUA

Probatzen den horren gaineko ezarpenari buruzko protokoloa ezarri behar da (ez dadila izan leku jakin batean egindako proba hutsa, jardunbide onak instituzionalizatzeko bidea baizik).

Espazio publiko eta pribatua izan behar da, hasieratik, ikasteko, jolasteko eta akatsak egiteko beta emango duena. Normalean ez dagoen horrengana iristeko ahalegina egin behar da

Ilab-en pilotuak interes-arloetan edo herritarren erantzuna behar den tokietan (hezkuntza, etxebizitza...) zehaztu behar dira

4. KONPROMISOA - OPEN ESKOLA

Zer da OPEN ESKOLA?

Espazio honen iturria da erakundeek duten konpromisoa, honako hauek sustatzeko:

Aniztasuna – herritar guztiei zabalik
Garapena– herritarren gaikuntza (konpromisoa, aktibazioa)
Erantzukidetasuna
Elkarrekin ezarritako diseinua
Konfiantza
Gardentasuna

Dinamikak, ereduak eta egiturak zehaztuko ditu, honako hauek lortzeko:

Egiten ikastea eta esperimintatzea
Adostasun-foroen bidez lankidetzan aritzea, informazio gardena emanaz
Informazioa trukitzea, lankidetzan aritzeko gaitasun berriak garatzea...

2020an zer izatea nahi dugu?

SARE bat

Udalerrien lehentasunak eta baliabideak kontuan hartuta herritarren eskola ezartzeko eredu bat (eskalatan bana daitekeena) bultzatu behar da. Open eskolaren eredu euskalduna, bertikalki eta horizontalki koordinatua eta adostua, elkarlanean sortua, eta eraginkorra, askotariko ordezkariak duten tokiko open eskolen sare bat osatze aldera

ELKARRIZKETA ETA EKINTZARAKO espazioa

Aldaketa sortu behar da erakundeen eta herritarren arteko komunikazioan: kritika eraikitzailea, inplikaturako pertsonen portzentaje altua...

Gure herriaren edo hiriaren egoera eztabaidatzeko, gaitasun berrien bidez gatazka kudeatzen ikasteko, eta kultura partaide handiagoa sortzeko espazioa izan behar da

Open Eskola martxan egon behar da, herritar guztiei zabalik, etengabe ebaluatzen, aktiboki entzuten eta une oro hobetzen. Herritarrek balio publikoa duten sorrera-proiektuak egin ahal izateko espazioa izan behar da

Halaber, etorkizunean digitala ere izan beharko da, bere irismena eta eragina bikoizteko

NOLA egin dezakegu lan, eredu hori garatzeko?

1. EAEn, munduan eta OGP bazkideetan herritarrentzat irekitako eskoletako praktika berritzaileak mapatu behar dira: ezagutu eta aztertu
2. Open Eskola ereduaren modu partaidean garatu eta diseinatu behar da. Lidergotza, laneko organo eta agente partaideak, erakundearen aurrekontua eta konpromisoa, informazio-eredua eta komunikazio-eredua zehaztu behar dira
3. Gasteizen open eskola ezarriko da
4. Emaizak eta eraginak ebaluatu behar dira, segmentu kritikoen arabera banatuta, eta metodologia partaideen bidez
5. Eredua egokitu eta hura orokortzeko gida, eskuliburu eta orientazioak garatu behar dira

NOREKIN?

Herritar antolatuekin eta ez antolatuekin

Haurrekin eta gazteekin

Politikariekin

Administrazio publikoekin: Jaurlaritza, Aldundiak, udalak, Eudel

Teknikariekin

Prestakuntzarako erakunde espezializatuekin

GARRANTZITSUA

OPEN ESKOLA pilotua diseinatzeko, Euskadin egindako antzeko proiektuak identifikatu eta diseinuan kontuan hartu behar dira

OPEN ESKOLAREN EREDU bat behar dugu. Open eskola pilotua ezarriko da Gasteizen, baina edozein udalerritarako balio behar duen diseinua eduki behar du (beste baliabide eta tamaina batzuetara egokitzen dena)

Gaikuntza eta motibazioa udalerrri-mailan lehentasunezkoak diren eremuekin lotu behar dira: herritarren interesekoak diren gaietan entrenatu/ ikasi / trebatu behar da

5. KONPROMISOA – OSOTASUN-SISTEMA

Zer esan nahi du EUSKAL OSOTASUN-SISTEMAK?

Interes publikoa modu bateratu eta estandarizatuan jorratu behar da, aurrerapen-maila desberdinak kontuan hartuta. Sistema progresiboa eta ulertzeko modukoa izan behar da:

Herritarren partaidetzarekin sinatua, eraginkortasuna eta enpatia oinarri hartuta

Konpromiso politikotik abiatuta

Mekanismo eta tresnak garatu ahal izateko

Irisgarria eta gardena, barneko eta kanpoko ikuskaritzak dituen (kanpoko kontrol-tresna etengabeak)

Etengabe garatu eta egiaztatzen dena

Aukera eman behar du:

Modu argi, garden eta irisgarrian informatzeko

Jarrera ez oso etikoak edo praxi txarrak prebenitu eta antzemateko neurriak ezartzeko

Konfiantza indartu eta berreskuratzeko

EAE mailako lege bat garatzeko

Herritarrekin une oro egiaztatutako metodologiak, praktikak eta sistemak ezartzeko

Herritarrek kontrol handiagoa izateko

Zer lortu nahi dugu 2020an?

Euskal osotasun-sistema publikoa zehaztea EAEko erakunde guztientzat, herritarrekin partekatuta

Kontuak emateko sistema erraza eta sinesgarria, herritarren partaidetza ahalbidetzen duena

Erakundearteko sistema homoginoa, kontzeptu argi eta partekatuak dituen, eta alerten, lortu beharreko helburuen, kronogramaren eta abarren sistema barne hartzen duena

Osotasunari eta etika publikoari buruzko prestakuntza-programa

Esperientzia pilotua, egiaztatua eta ebaluatua, eredu progresibo honek testuinguru jakin batean duen bideragarritasuna probatzeko

EAE mailako lege bat, borondatezko eta nahitaezko alderdiak mugatuko dituen

NOLA lor dezakegu?

1. Munduan eta OGP bazkideetan osotasun-sistemen praktika berritzaileak mapatu behar dira
 - Praktika onenak aukeratu eta ezartzeko
 - Herritarrei eta kolektiboari prestakuntza eta informazioa emateko programa bat ezartzeko
2. Euskal osotasun-sistema ezarri behar da, gizartean etengabe egokitzen dena eta honako tresna eta mekanismo hauek garatzen dituena:
 - Kargudun publikoentzako eta zuzendarientzako osotasun-tresnak eta -mekanismoak garatu behar ditu
 - Administrazioetako langileentzako osotasun-tresnak eta -mekanismoak garatu behar ditu
 - Kudeaketa publikoko prozedura zehatzetarako osotasun-tresnak eta -mekanismoak garatu behar ditu (langileen hautaketa, kontratuen esleipenak, diru-laguntzen emakidak...)
3. Jarduera publikoa kudeatzean arriskuen berri emango duen informazio-sistema diseinatu behar da:
 - Sistema bat txertatu behar da, herritarrek, praktikaren batek osotasun-baldintzak bete ez baditu, salaketa jar dezaten
 - Informazioa eta prestakuntza sustatu behar dira
4. Lurralde batean ezarri behar da (lagin esanguratsua), ezarpena kasuan kasuko arlorako egokia ote den baloratuta

NOREKIN?

Erakundeekin: politikari eta teknikariek
 Herritar antolatuekin eta herritar ez antolatuekin
 Elkargo profesionalekin, elkarteekin, GKEekin, hedabideekin
 Ondasun eta zerbitzu publikoak ematen dituzten enpresekin
 Kultura, kirol, zientzia, artea eta bestelako arloetako erreferente eta "influencer" direlakoekin
 Diru-laguntza publikoen onuradunekin
 Hezkuntzaren sektorearekin
 Agente adituekin

GARRANTZITSUA

Osotasuna jorratu behar da, ereduetan oinarrituta (tresnetan beharrean). Sistema progresiboa eta estandarizatua izan behar da

Konpromiso hori Euskal Legea garatzeko abiapuntu izan behar da

Sistema ulergarria izan behar da, eta kanpoko eta barruko ikuskaritzak egin behar zaizkio

Hezkuntza-sistemearekin lankidetzan prestakuntza-programa bat garatu behar da